# Akta

**UDALAREN OSOKO BILKURA** **SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**TOKIA / LUGAR: Udaletxea**
**EGUNA / FECHA: 25/9/2013**
**HASIERA / INICIO: 19:30**
**AMAIERA/FINAL: 20:00**

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**ALKATEA/ALCALDESA**
Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda (BILDU)

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:**
Ziortza Bilbao Agirre (Bildu)
Jone Miren Arrasate Urquiaga (Bildu)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (Bildu)
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)
Andrés Zearreta Otazua (EAJ-PNV)

**IDAZKARI NAGUSIA/ SECRETARIO GENERAL**
Víctor-Martín Amparan Álvarez

**IZAERA / NATURALEZA:** Ohikoa / Ordinaria
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** Lehena / Primera

Busturiako Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkatea Mahaiburu eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udalaren Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Ez ziren bertaratu Berezi Echebarria Rivas (Bildu) eta Miren Nekane Renteria Echevarria (Bildu) andreak. Saioan ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.
Alkate Andreak aginduta hasiera eman zitzaion bilerari zinegotziei nahikoa denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, honako akordioetara iritsita:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. No asistieron Berezi Echebarría Rivas (Bildu) y Miren Nekane Renteria Echevarria (Bildu). Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.
De orden de la Sra. Alcaldesa dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

**1.- Aurreko saioko akta.-**

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen 2013ko uztailaren 12ko akta.

**1.º.- Acta de la sesión anterior.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprobó el acta de la sesión de 24 de julio de 2013.

**2.- Landa-bideen erabileraren inguruko ordenantzaren aldaketa.-**

Osoko Bilkurak jakinarazi zitzaion jendaurreko eta interesdunen entzunaldi fase bitartean, landa-bideak ibilgailu astunekin erabiltzeari buruzko Ordenantzaren 6. artikuluaren aldaketaren behin-behineko onarpenaren ostean (apirilaren 9ko 210/13 epaia betetzeko, EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien Salak emana, 6. artikuluaren baliogabetasuna ebatzi zuena), Euskadiko Zur Mahaia Zuraren Sektore Mahaia Elkarteak alegazio bat aurkeztu duela, uste duelako arau orokorrak izan behar duela landa-bideak urteko egun guztietan erabili ahal izatea, eta salbuespena baldintza klimatologikoak txarrak direnean.
Era berean, Gaurko Abokatuak aholkularitza juridikoak emandako ebazpenaren berri eman zitzaion; ebazpen horren arabera, alegazioa ez litzateke onartu beharko erabakiaren oinarriak diren arrazoiengatik.
Kontuan hartuta 6. artikulurako proposaturiko idazketa berriak erabat errespetatzen dituela zuzenbidezko oinarriak eta lehen aipatu epaia (apirilaren 9ko 201/13), Auzitegiak zigortu duena Busturiako landa-bideetatik ibilgailu astunak zirkulatzeko mugaren denborazko helmenaren murrizgaitasuna eta predeterminazioa baita, horrela baliogabe adierazitako artikuluak ez luke utziko egoki neurtzen arrisku-adierazleen (klimatologia, bidearen egoera...) arteko harremana bideen kontserbazioaren eta bide horiek ibilgailu astunekin gehiago edo gutxiago erabiltzearen inguruan, eta planteaturiko aldaketak hain zuzen (bigarren paragrafoa) Auzitegiak neurtzeko exijituriko

**2º.- Modificación de la ordenanza de utilización de caminos rurales.-**

El Ayuntamiento Pleno fue informado de que, durante la fase de exposición al público y audiencia de los interesados tras la aprobación provisional de la modificación del art. 6.º de la Ordenanza sobre utilización de los caminos rurales con vehículos pesados (para dar cumplimiento a la sentencia n.º 210/13, de 9 de abril, dictada por la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, por que declaraba la nulidad de su artículo 6.º), se ha presentado una alegación de la Asociación Mesa Intersectorial de la Madera de Euskadi-Euskadiko Zur Mahaia, que se opone a la redacción dada al artículo 6.º, por considerar que la regla general debe ser que la utilización de los caminos rurales todos los meses del año y excepcionarse cuando las condiciones climatológicas sean adversas.
También fue informado del dictamen emitido al respecto por la asesoría jurídica Gaurko Abokatuak, que propone desestimar la alegación por los motivos que sirven de fundamento a la decisión.
Considerando que la nueva redacción propuesta para el artículo 6 respeta plenamente los fundamentos de derecho y el fallo de la sentencia 210/13, de 9 de abril del TSJPV (Sala de lo Contencioso-Administrativo) ya que lo que el Tribunal ha sancionado es la irreductibilidad y predeterminación del alcance temporal de la limitación de la circulación con vehículos pesados por los caminos rurales de Busturia, de forma que el artículo declarado nulo no permitiría ponderar adecuadamente la relación entre los indicadores de riesgo

osagai-mekanismo malgua (4. Oin. Jur.) txertatzen du, udal agintariaren irudian datzana baldintza klimatikoek une bakoitzean arauan ezarritakoa aholkatzen edo onartzen duten kasuetarako; horrela, Auzitegiak adierazitako gehiegizko zurruntasuna desagertu egiten da eta, aldi berean, proportzionaltasunaren osagaia txertatzen da (ohartu Auzitegiak berak onartzen dituela udal kontrol prebentiborako eskumenak, baimena edo debekua, landa-bideen kontserbazioa bermatzeko inolako kalterik ekarri gabe eskatzaileak eskatzen duen erabilera komun bereziari).

Kontuan hartuta eskatzailea, MIMAren izenean eta hura ordezkatuz, Elkarte horren Presidentea den heinean, bere ekintzen kontra joaten ari dela, Ordenantzaren 6. artikuluaren inguruan proposaturiko idazketa berria 2008ko urrian onarturikoaren berdin-berdina den neurrian, hain zuzen Ordenantzan Elkarte horrek berak eskatu zuelako txertatua, 2008ko irailaren 12ko alegazio bidez eskatu baitzuen baldintza klimatologikoak kontuan har zitezen baimenak emateko orduan, Udalak orain berriz hartu den 6. artikulua idatziz egin zuena, eta, areago, 2010ean Ordenantzaren aldaketaren harira, ondoren Auzitegiak aipatu epaian baliogabetuko zuen idazketaren kontra agertzeko, 6. artikuluaren 2. paragrafoa kentzen zuena, Elkarteak 2010eko ekainaren 15eko idazkian (1084 zkia.) berriz eskatzen zuen “6. artikulua aurreko Ordenantzan bezala idatzita geratzeko (2008koaz ari da), alegia, ez aldatzeko”, eta hori da, hain zuzen, Udalak une honetan nahi duena, 2008ko 6. artikuluaren idazketa bera ezarri, MIMAK berak proposatu zuena. Hau da orain planteaturiko alegazioa ez onartzeko arrazoia. Batzordeak aho batez proposatu zion Osoko Bilkurari:

Lehenengo: Ez onartzea Zuraren Sektore Arteko Mahaiak aurkezturiko alegazioa.

Bigarrena: Behin betiko onartzea landa-bideak ibilgailu astunekin erabiltzeari buruzko Ordenantzaren 6. artikuluaren idazketa, horrela idatzita:

> “6. artikulua.-
>
> Landa-bideak ibilgailu astunekin maiatzetik urrira, biak barne, baino ezingo dira erabili.
>
> Salbuespenez, baldintza klimatologikoen arabera, Alkateak edo Zinegotzi Delegatuak baimena eman ahal izango dute landa-bideak debekatuta dauden hiletan erabiltzeko, edo erabilera baimendutako hiletan debekatzeko”.

Hirugarrena.- Udal ordenantzaren testua osorik argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udalaren web-gunean eta Udaletxeko iragarki-taulan, indarrean sar dadin, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko

(climatología, estado de la vía…) sobre la conservación de los caminos y el mayor o menor uso de esas vías con vehículos pesados y la modificación planteada introduce precisamente (párrafo segundo) el elemento-mecanismo flexible para la ponderación demandado por el Tribunal (F.Jco. 4º), consistente en la figura de la autorización municipal para aquellos casos en los que las condiciones climáticas aconsejen o permitan lo contrario a lo fijado por la norma en cada momento; de esta forma, se elimina la excesiva rigidez señalada por el Tribunal y se introduce al mismo tiempo el elemento de la proporcionalidad (obsérvese que es la propia Sala quien está reconociendo las facultades de control preventivo municipal, autorización o prohibición, para garantizar la conservación de los caminos rurales sin que ello suponga un menoscabo para el uso común especial que el reclamante demanda).

Considerando que el reclamante, que actúa en nombre y representación de MIMA en su condición de Presidente de dicha Asociación, está yendo contra sus propios actos, ya que la nueva redacción del art. 6 de la Ordenanza propuesta es idéntica a la que fue aprobada en octubre de 2008, precisamente introducida en la Ordenanza a petición de esa misma Asociación, quien mediante alegación de fecha 12 de septiembre de 2008 solicitaba que se tuvieran en cuenta las condiciones meteorológicas a la hora de conceder autorizaciones, cosa que hizo el Consistorio dando la redacción al art. 6 que ahora se retoma y, a mayor abundamiento, con motivo de la modificación de la Ordenanza en el año 2010, para oponerse a la redacción que posteriormente sería anulada por el Tribunal en la sentencia arriba mencionada, la que eliminaba el párrafo 2º del art. 6, la Asociación reiteraba en escrito con fecha de entrada (nº 1084) de 15 de junio de 2010, su solicitud de que el meritado “artículo 6 quedara redactado igual que la Ordenanza anterior (se refiere a la de 2008), o sea que no se modifique” y eso es precisamente lo que el Ayuntamiento pretende en este momento, retomar la redacción de 2008 del art. 6, que fue propuesta de la propia MIMA. Es esta otra concluyente razón por la que no cabría admitir ahora la alegación planteada.

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó:

Primero: Desestimar la alegación presentada por la Mesa Intersectorial de la Madera.

Segundo: Aprobar con carácter definitivo, la redacción final del artículo 6.º de la Ordenanza sobre utilización de los caminos rurales con vehículos pesados, con la siguiente redacción:

> “Artículo 6.-
>
> Únicamente está permitida la utilización de los

7/1985 Legearen 70.2 artikuluan aurreikusitakoa kontuan hartuta.

caminos rurales con vehículos pesados durante los meses de mayo a octubre, ambos inclusive.

Excepcionalmente, en función de las condiciones climáticas, el Alcalde o el Concejal Delegado podrán otorgar autorización para la utilización de los caminos en los meses en que está prohibido, o impedir la utilización en los meses en que está permitido."

Tercero.- Publicar el texto íntegro de la modificación de la ordenanza municipal en el Boletín Oficial de Bizkaia, web municipal y tablón de anuncios del Ayuntamiento, a los efectos de su entrada en vigor, a tenor de lo previsto en el artículo 70.2 LRBRL. art.70.2 Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local

**3.- 2014rako Ordenantza Fiskalak.-**

Osoko Bilkurak 2014rako Zerga-ordenantzak aztertzeari ekin zion, zinegotzi guztiak ados egonik udal zerga, tasa eta prezio publikoak uztailari dagokion Euskal Autonomia Erkidegoko Kontsumoko Prezioen Indizearen igoeraren araberakoak izatearekin; hau da, ehuneko 2,2koa.

Toki Ogasunak arautzen dituen 9/2005 Foru Arauaren 16. artikuluan eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 47. artikuluan xedatutakoaren arabera, Batzordeak ondokoa proposatu zion aho batez Osoko Bilkurari:

1.- Behin-behineko izaerarekin hurrengo ordenantzen aldaketa onartzea:

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen Udal Zerga-ordenantza.

Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Udal Zerga-ordenantza.

Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera ekonomikoak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen Udal Zerga-ordenantza.

2.- 30 egunez jendaurrean jartzea; epe horretan, interesdunek txostenak aztertu eta egoki iruditzen zaizkien kexak aurkeztu ahal izango dituzte; argitalpena iragarki-taulan, udal web-gunean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean egingo da.

3.- Erakusketa publikorako epea bukatutakoan, dagozkion behin betiko akordioak egingo dira, aurkezturiko kexak ebatzita eta behin-behineko akordioak aipaturiko aldaketekin onartuta.

Ez balitz kexarik aurkeztuko, akordioa behin betiko onartutzat joko da, Osoko Bilkuraren bilera egin behar barik.

4.- Aurreko atalak aipatzen dituen behin betiko akordioak,

**3.º.- Modificación de las ordenanzas fiscales para 2014.-**

El Ayuntamiento Pleno procedió al estudio de las Ordenanzas Fiscales municipales para el año 2014, mostrándose todos los concejales de acuerdo en que el incremento de los impuestos, tasas y precios públicos municipales fuese equivalente al incremento anual del Índice de Precios al Consumo en la Comunidad Autónoma del País Vasco correspondiente al mes de julio, es decir del 2,2 por ciento.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 16 de la Norma Foral 9/2005, reguladora de las Haciendas Locales, y 47 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó:

1.- Aprobar provisionalmente la modificación de las siguientes ordenanzas:

Ordenanza Municipal Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

Ordenanza Municipal Fiscal reguladora de tasas por la utilización privativa o el aprovechamiento especial del dominio público municipal.

Ordenanza Municipal Fiscal reguladora de las tasas por la prestación de los servicios públicos y realización de actividades económicas.

2.- Exponerla al público por plazo de 30 días, dentro de los cuáles los interesados podrán examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas; la publicación se efectuará mediante el tablón de anuncios, página web municipal y en el Boletín Oficial de Bizkaia.

3.- Finalizado el período de exposición pública, se adoptarán los acuerdos definitivos que procedan, resolviendo las reclamaciones que se hubieran presentado y aprobando la redacción de las modificaciones a que se refiera el acuerdo provisional. En el caso de que no se hubieran presentado

automatikoki hala bihurturiko behin-behinekoak barne, eta aldaketen testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta hala izan arte ez dira indarrean sartuko.

reclamaciones, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo, hasta entonces provisional, sin necesidad de acuerdo plenario.
4.- Los acuerdos definitivos a que se refiere el apartado anterior, incluyendo los provisionales elevados automáticamente a tal categoría, y el texto íntegro de las modificaciones, serán publicados en el Boletín Oficial de Bizkaia, sin que entren en vigor hasta que se haya llevado a cabo dicha publicación.

**4.- Hiriko hondakin solidoak jasotzeko eta tratamendu zentrora eramateko kontratuaren baldintza-orriak.-**

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen hiriko hondakin solidoen bilketa eta hondakinen tratamendu zentrorako garraioa kontratatzeko espedientea, prozedura ireki bidezkoa, kontratua eraenduko duten Administrazio-baldintza Berezien eta Baldintza Teknikoen Agiria, baita esleipen prozedura irekitzea ere.

**4.º.- Pliegos del contrato de recogida de residuos sólidos urbanos y su transporte al centro de tratamiento.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprobó el expediente para la contratación del servicio de recogida de residuos sólidos urbanos y su transporte al centro de tratamiento, por procedimiento abierto y los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y de Condiciones Técnicas a regir en el referido contrato, así como disponer la apertura del procedimiento de adjudicación.

**5. Galde-eskeak.-**

Zearreta jaunak gogorarazi zuen aurreko Batzorde batean Tokiko Gobernu Batzordean zuzenean hitz egingo ziren gai guztiak aldez aurretik Informazio Batzordera eramateko eskakizuna egin zuela, eta eskakizun hori onartuko ote den jakin nahi zuen.
Alkate andreak erantzun zion gai gehienak Informazio Batzordera eramango direla, baina batzuk eramatea, urgenteak edo izapidetzekoak, kasu, ez dela beharrezkoa izango.
Zearreta jaunak esan zuen erantzun horrek bere eskakizunari uko egiten diola, eta Alkateak esan zuen ezetz, positiboa dela salbuespenak izan ezean.
Zearreta jaunak esan zuen bere eskakizuna dela Informazio Batzordera gai guztiak, salbuespenik gabe, eramatea, beraz, bere eskakizuna ez onartutzat jotzen duela eta horrek eragotzi egingo diela gai guztien eztabaidan parte hartzea, eta haien kontrol lana betetzea. Salatu zuen EAJko zinegotzien taldea eta honek ordezkaturiko guztiak gai askoren azterketatik at geratzen direla (besteak beste, duela asko eskatuta dituzten hirigintzako baimenak edo arau-hausteak).
Alkateak esan zuen hori demagogia dela; EAJko taldeak informazio guztia izan duela eskura (bera udal gobernuan zegoenean eman ohi zuena baino gehiago) eta horrela izaten jarraituko duela. Esan zuen informazio guztia ematen jarraituko duela eta hirigintza arloko gaiak Informazio

**5.º.- Ruegos y preguntas.-**

El Sr. Zearreta recordó que en una Comisión anterior solicitaron que todos los asuntos que se iban a tratar directamente en la Junta de Gobierno Local pasasen previamente por la Comisión Informativa y quería saber si se iba a aceptar esa petición.
Le respondió la Sra. Alcaldesa diciendo que la mayoría de los asuntos pasarían por la Comisión Informativa, pero que habría asuntos urgentes o de trámite que no era necesario que pasasen por ella.
El Sr. Zearreta dijo que esa respuesta era una negativa a su petición y la Sra. Alcaldesa le dijo que no, que era positiva salvo excepciones.
El Sr. Zearreta dijo que su petición era que pasasen todos los asuntos sin excepciones por lo que consideraba que su petición se había rechazado y que eso les impedía participar en el debate de todos los asuntos y les dificultaba su labor de control. Denunció que el grupo de concejales de EAJ-PNV y todos sus representados quedaban excluidos del análisis de muchos asuntos (entre ellos las licencias o infracciones urbanísticas que tienen solicitadas desde hace tiempo).
La Sra. Alcaldesa dijo que eso era demagogia; que el grupo de EAJ-PNV ha dispuesto de toda la información (más que la que facilitaba él cuando estaba en el gobierno municipal) y así seguiría siendo. Dijo que se seguiría facilitando toda la información y que los asuntos de urbanismo se estudiarían en la Comisión Informativa como hasta ahora, pero que algunos

Batzordean aztertuko direla orain arte bezala, baina garrantzirik gabeko kontu batzuek Gobernu Batzordera zuzenean joaten jarraituko dutela.

Zearreta jaunak esan zuen eurentzat ez dagoela garrantzirik gabeko gairik, auzotar batek zer edo zer eskatzen duenean baduela bere garrantzia, eta hirigintzako arau-hausteen gaiari dagokionez bi urte igaro direla aztertzeko eskatu zutenetik, eta ez dela egin.

Malaxetxebarria andreak erantzun zuen gai guztiak mahaira ekarri direla eta ez zaiola informaziorik ukatu inolako talde edo auzotarri, gardentasun osoz jokatuta: aktak web-gunean paratzen dira, deialdiak elkarteei eta abarri bidaltzen zaizkie... udal araudiak ezartzen duen bezala. Esan zuen Informazio Batzordera eramaten ez diren gaiak arrazoi operatiboengatik ez direla eramaten, eta, askotan, badirudiela auzotarren interesak defendatu baino, kuxkuxean ibiltzeko gogoa dagoela, beraz, proposatu zuen gaiak eskatzailearen izena adierazi gabe eramatea.

Zearreta jaunak esan zuen lotsagarria iruditzen zitzaiola gai jakin batzuk aztertzeko eskaera egiten dutenean kuxkuxean ibiltzeko gogoz egiten dutela esatea.

Zearreta jaunak adierazi zuen EAJko zinegotziek euren dieten %15 hiruhilero sartuko dutela udal altxortegian, eta, hori dela eta, Udalaren kontu korronte zenbakia eskatu zuen.

Azkenik, Zearreta jaunak salatu zuen herriko festetan ezarritako Batzordearen txosnan alderdi politiko jakin baten kartelak ipini zirela, eta horietan, haren ideiak adierazteaz gain, EAJren kontrako kritikak ageri zirela.

Malaxetxebarria andreak galdetu zion zein festetan gertatu zen hori, eta Zearreta jaunak esan zion Axpe eta San Kristobalekoetan izan zela; horren aurrean, Alkateak erantzun zion San Kristobaleko festetan ez zela Batzordearen txosnarik egon, taldeena baizik.

Zearreta jaunak esan zuen hori horrela izanda bertan behera utziko zuela San Kristobaleko festei zegokien salaketa, baina eutsi egingo ziola Axpekoei zegokienari.

Eta besterik gabe, Alkate andereak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate andereak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

asuntos sin importancia seguirían pasando directamente a la Junta de Gobierno.

El Sr. Zearreta dijo que para ellos no hay asuntos sin importancia, que cuando un vecino pide algo tiene su importancia y respecto del tema de las infracciones urbanísticas han pasado años desde que han solicitado que se estudien y no se ha hecho.

La Sra. Malaxetxebarria contestó que todos los asuntos se han traído a la mesa y que no se ha negado ninguna información a ningún grupo y vecinos con total transparencia. Se colocan las actas en la web, se remiten las convocatorias a las asociaciones, etc… tal y como establece el reglamento municipal. Que los asuntos que no van a la Comisión Informativa son por motivos operativos y que muchas veces parece que más que un interés de defender los intereses de los vecinos lo que hay son ganas de curiosear, por lo que proponía que los asuntos fuesen sin identificación de la persona solicitante.

El Sr. Zearreta dijo que la afirmación de que ellos piden examinar determinados asuntos por curiosear le parecía vergonzosa.

El Sr. Zearreta manifestó que los concejales de EAJ-PNV van a proceder a ingresar trimestralmente el 15% de sus dietas en las arcas municipales, por lo que solicitó se les facilitase el número de cuenta corriente del Ayuntamiento.

Por último, el Sr. Zearreta denunció que en las fiestas del pueblo se ha observado que en la txosna de la Comisión se han colocado carteles de un determinado partido político, en los que, además de expresar sus ideas, se vertían críticas contra EAJ-PNV.

La Sra. Malaxetxebarria le preguntó en qué fiestas había ocurrido esto y el Sr. Zearreta le respondió que en las de Axpe y las de San Cristóbal, a lo cual la Sra. Alcaldesa le respondió que en las fiestas de San Cristóbal no hubo txosna de la Comisión, sino de los grupos.

El Sr. Zearreta le dijo que en ese caso rectificaban la denuncia respecto de las fiestas de San Cristóbal, pero que la mantenían respecto de las de Axpe.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Sra. Alcaldesa dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, la Sra. Alcaldesa y el Secretario que certifico.

Alkatea/La Alcaldesa,

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda

Idazkaria/El Secretario,

Víctor-Martín Amparan Álvarez